

EUSKARA EZ DA POBREEN HIZKUNTZA

GOTZON EGIA

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO KIDEA

1. SARRERA

Ausartuko naiz esatera euskara biziberritzeko ahalegin sozial eta instituzionalak XXI. mendean gainditu beharko dituen eginkizunen artean nagusietako bat dela hau: eskala sozial apalenetan bizi diren herritar gehienak ahalegin horretatik kanpo ari gara uzten.

Castillo Suarez poetak hitz zorrotz hauekin azaltzen zuen, Euskaltzaindiko kide izateko izendatu berritan egin zioten elkarrizketa batean: «Euskara ez da pobreen hizkuntza, ikasteagatik oraindik ordaindu behar delako. Euskara ikasteko denbora eta dirua behar dira, eta gainera sentitu behar duzu zerbaitetarako balio dizula, eta ez naiz bakarrik lanaz ari».¹

Kezkatu behar genuke, Suarezek argudiatzen dituen bi arrazoiengatik: *denbora* eta *dirua behar dira euskara aintzat hartu ahal izateko*, hain zuzen ere bazterketa sozialaren ertzetan bizi direnek beti aurka dituzten bi faktoreak.

Kezkatu behar genuke, baieztapen hori sinisterra, galdera larriak sortzen baitira: euskara ez bada *pobreen hizkuntza*, zer izan daiteke, orduan, soilik eskusio sozialaren arriskutik libre bizi direnen hizkuntza?

Lerro hauetan saiatuko naiz dakigun apurraz — eta ez dakigunaz — azalpenak ematen eta ondorio batzuk ateratzen.²

1. Ikus *Argia aldizkaria*, 2797 zk., 2022ko urriak 23, 15-18. or. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2797/castillo-suarez-hitz-gutxiko-poeta>

2. Aldagai sozioekonomikoek euskararen jakintzan eta erabileran duten eraginaz, panorama osatu bat eman zuen Paul Beitiak 2020ko abenduaren 3an, «Euskara eta maila sozioekonomikoa: errepasso soziolinguistikoa» artikuluan. Lerro hauetan jasotzen ditudan datuak, funtsean, berari jarraituta osatu ditut. Ikus *Gedar langile kazeta*. <https://gedar.eus/arteka/euskara-eta-maila-sozioekonomikoa-errepasso-soziolinguistiko-bat>

2. ZER DAKIGU?

Oso gutxi dakigu aldagai sozioekonomikoen eta hizkuntzen arteko loturaz. Esan daiteke datu soziolinguistiko nagusien argitan ez genezakeela ia ezer jakin egoera sozioekonomikoak (alegia, klase sozialak) zer nolako eragina duen jendearen hizkuntza jokabideetan.

2.1 GIPUZKOAKO POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETARI BURUZKO INKESTA

Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkesta izan da aldagai sozioekonomikoak eta euskararen jakintza maila gurutzatu dituen azterketa soziologiko bakarra, orain arte.

2012an egindako lehen inkestan³ hasi ziren aldagai horien gurutzatzen, eta hala egin dute 2015e an⁴ eta 2019an.⁵

Datu mugatuak dira, noski, Gipuzkoa soilik hartzen baitute, baina, ziurrenik, pentsatzekoa da beste lurraldeetan joera berdina izango dela.

Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 2019ko inkestak

korrelazio argi bat ezartzen du pobrezia erlatiboaren eta lehen hizkuntzaren artean. Inkestak honelaxe jasotzen du egoera, laburpen exekutiboan:

«Hizkuntzen ezagutzak ere zerikusia du familien diru-sarreraren eskalaren kokapenean eta/edo erabateko gizarteratsetik bazterkeria larrienera bitarteko eskalan. Ikuspegi horretatik hartuta, euskara-ezagutzarik ez duen biztanleriaren pobrezia-tasak euskara hiztunena bikoizten duela nabarmendu behar da».⁶

Gogoan izan behar da inkestak aztertzen duela, alde batetik, Gipuzkoan pobrezia erlatibo egoeran dauden biztanleen lehen hizkuntza (edo «ama hizkuntza»); eta, bestetik, zenbatean dakiten euskaraz. Laburpenean adierazten den moduan, lotura argi bat dago lehen hizkuntzaren eta pobrezia erlatiboaren artean: lurralde osoko pobrezia erlatiboaren tasekin alderatuta, askoz ere apalagoa da pobrezia egoera lehen hizkuntza gisa euskara dutenen artean. Gipuzkoarren % 16,2 bizi da pobrezia erlatiboan, oro har, baina lehen hizkuntza euskara dutenen % 8,4 soilik, eta euskara gaztelania-ekin batera dutenen % 7,2. Aldiz, lehen hizkuntza gisa gaztelania dutenen artean

3. Ikus Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2012 <https://www.siiis.net/eu/investigacion/ver-estudio/365/>

4. Ikus Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2015 <https://www.siiis.net/eu/investigacion/ver-estudio/352/>

5. Ikus Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkesta 2019 <https://www.siiis.net/eu/investigacion/ver-estudio/567/>

6. GPGBI 2019, 7. or.

% 16,8 da pobrezia tasa, eta euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenen artean, biztanleen % 58,2 bizi da pobrezia erlatibo egoeran.

Gipuzkoako datuen arabera, korrelazio argi samarra dago familiaren errentaren eta euskararen artean: biztanle batek zenbat eta dirubide apalagoak izan, orduan eta aukera gutxiago dago biztanle horrek euskaraz jakiteko edo haren lehen hizkuntza euskara izateko.

2.2 EUSKARAREN B1 MAILA LEHEN HEZKUNTZAN

Beste datu aspaldikoago batzuk daude *Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan* azterketan,⁷ populazioaren ezaguri sozioekonomikoak eta euskararen jakintza eta erabilera maila aztertzen dituztenak.

Zehazki, azterketa honetan Lehen Hezkuntzako ikasleen familiaren indize sozioekonomiko eta kulturala gurutzatzen da euskara mailarekin, B1 mailako azterketa bat eginda ikasleen artean.

Labur esanda, azterketa honen emaitzetan nabarmen gelditzen dira bi datu:

- Maila sozioekonomiko apalena duten familien % 81,5 da ez-euskalduna.
- Maila sozioekonomikoan gora egin ahala, familia euskaldunen proportzioa handitu egiten da etengabe: % 25,6 behe-erdi mailako familietan, % 28 goi-erdi mailakoetan eta % 30,9 maila sozioekonomiko garaieneko familietan.⁸

Datuak tentuz hartu behar dira, aspaldi samarrekoak izateaz gain, Lehen Hezkuntzako familiak soilik hartzen baititu, eta azterketak banatzen dituen bost maila sozioekonomikoak ez baitira xeheki definitzen. Hala ere, Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko Inkestaren datuen norabidea berresten dute, oro har.

2.3 EAEKO HEZKUNTZA SISTEMA

EAEko hezkuntza sistemaren ereduak⁹ ere interesgarriak izan daitezke, ikastetxeen jabetza publiko/pribatuari, ingurune soziolinguistikoari eta ikasketa mailari begiratzen badiogu, ikasleen maila sozioekonomikoa aintzat hartuta.

7. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (2007) Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. https://isei-ivei.euskadi.eus/c/document_library/get_file?uuid=239e5720-8043-4837-9323-96d2804db495&groupId=635622

8. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (2007), 50. or.

9. Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki. Datu-aurrerapena. 2022/23. Eustat. https://www.eustat.eus/elementos/tbl0002427_e.html

GOTZON EGIA

EAEan, Haur Hezkuntzako ikasleen % 82,8k eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako % 72,9k D ereduaren ikastetxeak dira. Hala ere, A ereduak badu lekurik gure hezkuntza sisteman: Araban zentro guztien ia laurdena osatzen dute, Batxilergoan eredu horretan ari dira ikasleen % 33,5 dira, eta Lanbide Heziketan ikasleen gehiengoak (% 63,4) gaztelania hutsean jasotzen dituzte eskolak.

Hizkuntza ereduaren datuak klase sozialaren ikuspegiaz aztertzen baditugu,¹⁰ gainera, emaitza argigarriak ateratzen ahal ditugu. A ereduari dagozkion datuak aski nabarmenak dira: EAEan Lehen Hezkuntza A ereduko zentro publikoetan egiten duten ikasleen artean, % 86,1 maila sozioekonomiko apalena edo erdi-behe mailakoa da.

Aitortu behar da, hala ere, A ereduaren ikasleen banaketak erakusten duela fenomeno ezagun bat: piramide sozialaren behe oinarrian eta goi erpinean euskaldunak gutxiago dira. Hala, itunpeko ikastetxe pribatuetan, A ereduaren dago maila sozioekonomiko altuko ikasle gehien, % 35,7. D ereduaren, aldiz, maila sozioekonomiko apalena tasak hagitik murriztagoak dira: % 22,4 itunpeko ikastetxe pribatuetan eta % 19,7 ikastetxe publikoetan, eta ikasleen % 28,8 sartzen da goi mailakoen taldean.

Datuok korrelazio bat erakusten dute, berriro: maila sozioekonomikoak argi eragiten du familien eta ikasleen hizkuntza jokabideetan. Paul Beitiak zioen gisa, «EAEko A ereduko zentro publikoek argiki betetzen duten funtzio soziala pobreen eta immigranteen seme-alabak jasotzea d[el]a, ghetto izaera hartzeraino».¹¹

2.4 EUSKARAREN ERABILERAREKIN LOTURA DUTEN FAKTOREAK

*Soziolinguistika Klusterrak 2019an egindako azterketa batek EAEko udalerrien errenta mailak eta eraikuntza moduak — estentsiboa edo landa eremukoa ala intentsiboa edo urbanoagoa — eta euskararen erabilera izan dezaketen erlazioa ikertu zuen.*¹²

Emaitzen arabera, euskara biziago da eraikuntza modu estentsiboko landa eremuetan. Eraikuntza intentsiboko eremuetan, hau da, eremu urbano populatua-goetan, ordea, gaztelania nagusitzen da.

Udalerri euskaldunen tipologia, oro har, errenta maila ertain-altuko eta landa eremukoa da. Alderaketaz, esan daiteke, beraz, errenta txikiak eta langabezia, besteak beste, euskararen bizi ahulagoarekin lotzen direla.

10. Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (2007), 35-37. or.

11. Paul Beitia (2020) «Euskara eta maila sozioekonomikoa: errepaso soziolinguistiko bat»

12. Natxo Sorolla, Olatz Altuna eta Imanol Larrea (2019) Euskararen erabilerekin lotura duten faktoreak. Soziolinguistika Klusterra. ISBN: 978-8494370847. https://soziolinguistika.eus/files/erabilera_faktoreak.pdf

Eremu urbanoa, familia eredu garai-
kidea eta immigrazioa bezalako faktoreak
— bizimodu kapitalista garai-
kidearen garaipena— euskararen presentzia murriztare-
kin lotzen dira, azterketaren arabera.

2.5 EUSKARA ETA IMMIGRAZIOA

Begirune Fundazioak ikerlan bat aur-
keztu zuen, 2023ko irailaren 14an, EHU-
ren Uda Ikastaroen barruan, «Euskara
eta immigrazioa. Ikerketa baten harira...»
izenburuz.¹³ Lerro hauek idazteko garaian
(2023ko azaroa) artean ikerlana argitaratu
gabe dagoen arren, hedabideetan
agertutako aipamenetan nabarmentzen da:

- alde batetik, Araba, Bizkai eta
Gipuzkoako atzerritarren % 85ek
ez dakiela batere euskararik;¹⁴
- eta, bestetik, euskara ondo daki-
ten etorkinak talde txiki bat direla,
hain txikia ezen aise marraztu bai-
taiteke haien soslaiara; oro har, uni-
bertsitate ikasketak dituzte, 18-29
urte artean, egoera ekonomiko
onean bizi dira, eta egoitza edo lan
baimenekin lotutako arazorik ez
dute.¹⁵

Azpimarratzen diren datuen ara-
bera, ikusten ahal da immigratzaileen
artean ere klase sozialaren arrakala erre-
pikatzen dela, euskarari dagokionez: soilik
esklusio sozialaren arriskurik gabe bizi den
eliteak ikasi du ongi euskaraz.

Aipagarria da, gainera, Eusko Jaur-
laritzaren mendeko Ikuspegi Immigra-
zioaren Euskal Behatokiak bultzatutako
ikerketa batean, Begirune Fundazioa
*gizarte inklusio eta integrazio indize sin-
tetiko* bat definitzen ari da. Aztertzen ari
diren dimentsio eta aldagaien barruan,
«Identitate» izeneko dimentsioan, «gaztela-
niaz jakitea» dago, baina ez dago euskara-
rekin lotura duen aldagairik.¹⁶

3. ZER EZ DAKIGU?

Gauza asko falta zaigu jakiteko, fak-
tore sozioekonomikoek, edo, labur esanda,
klase sozialak nola eragiten duen jendearen
hizkuntza jokabideetan. Izan ere, datu sozio-
linguistikoen iturri nagusietan ez dira aldagai
sozioekonomikoak gurutzatzen euskararen
jakintza edo erabilera mailarekin.

13. Ikus UIK «Euskara eta immigrazioa. Ikerketa baten harira...». <https://www.uik.eus/eu/node/7917/pdf>

14. Ikus «Araba, Bizkai eta Gipuzkoako atzerritarren % 85ak euskaraz ez daki 'batere', Begiruneraren arabera» in Naiz egunkaria, 2023ko urriak 30. <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20231030/araba-bizkai-eta-gipuzkoako-atzerritarren-85ak-euskaraz-ez-daki-batere-begiruneraren-arabera>

15. Arantxa Iraola «Migratzaileek euskara 'gertuko' izateak eragina du hizkuntzarekiko duten jarreraren» in Berria, 2023ko irailak 14. <https://www.berria.eus/albisteak/232779/migratzaileek-euskara-gertuko-izateak-eragina-du-hizkuntzarekiko-duten-jarreraren.htm>

16. Ikus Oleaga Páramo, José Antonio (2020) Índice sintético de inclusión e integración: un instrumento para el diseño de políticas públicas, Basque Inclusion Integration Index-BI3. Bilbo: EHU. ISBN: 978-8413192574. <https://begirune.eus/media/pages/proyectos/basque-inclusion-integration-index-bi3-ikuspegui/4130367759-1668110920/bi3cas.pdf>

3.1 MAPA SOZIOLINGUISTIKOA

Mapa soziolinguistikoak¹⁷ ez du aldagai sozial edo ekonomikorik hartzen. Soilik: hizkuntza gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza; aldagai hauekin gurutzatuta: lurraldea, eskualdea, gune soziolinguistikoa, adina eta sexua.

Mapan nahitaez jaso beharko lirateke aldagai sozioekonomikoak, gutxien-gutxienez familiaren errenta.

3.2 INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

Inkesta soziolinguistikoak¹⁸ ere ez du aldagai sozial edo ekonomikorik hartzen. Soilik: hizkuntza gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, erabilera eta euskara sustatzeari buruzko jarrera; aldagai hauekin gurutzatuta: lurraldea, adina, sexua eta erabilera eremua.

Kontuan hartu behar da azterketa hau dela euskararen lurralde eremu osoan (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) egiten den bakarra. 2016an egindako azken azterketan, guztira, 8.200 inkesta egin ziren.

Inkestak nahitaez jaso beharko luke ikuspegi sozioekonomikoa (errenta, lana, hezkuntza maila, etxebizitza eta abar).

3.3 EUSKARAREN ADIERAZLE SISTEMA (EAS)

Euskararen Adierazle Sistema (EAS)¹⁹ horrela definitzen da: «Euskaren eremu osoan hizkuntza-egoera sozialaren berri emango duen adierazle-sorta».

Aldagai multzo hauek biltzen ditu: euskararen estatus juridikoa; gaitasuna erabilera eta jarrera; familia, hezkuntza eta helduen euskalduntzea; eta adierazleak arloka (administrazioa eta oinarrizko zerbitzuak; sozioekonomia; kultura; hedabideak; harreman informalak eta aisialdi antolatua; ingurune digitala).

Ez du aldagai sozioekonomiko bakar bat ere jasotzen. *Sozioekonomia* izeneko arlo bat dauka, baina ez du aldagai sozial edo ekonomikorik aipatzen, baizik, soilik, «lankideekin erabiltzen den hizkuntza eta «euskararen erabilera lanean ikasketa mailaren arabera».

Euskararen egoerari buruzko adierazle sistema osatu bat izateko bokazioa duenez, nire ustez EASEk aldagai sozioekonomiko multzo bat eskaini behar luke, hitzunen eta familien errentaz, etxebizitzaz, lan egoeraz eta abar.

17. Ikus Eustat Mapa soziolinguistikoa. https://eu.eustat.eu/estadisticas/tema_232/opt_1/tipo_3/ti_mapa-soziolinguistikoa/temas.html#el

18. Ikus Eustat Inkesta soziolinguistikoa. https://eu.eustat.eu/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_3/ti_inkesta-soziolinguistikoa/temas.html#el

19. Ikus HPS Euskararen Adierazle Sistema. <https://www.euskadi.eu/eas/>

4. ALDAKETAK BEHAR DIRA HIZKUNTZA POLITIKETAN

Oso gutxi dakigu, gehiago jakin behar dugu, aldagai sozioekonomikoen eraginaz hizkuntzen egoeran, eta dakigun apurrak erakusten dituen desorekak berdintzeko erabakiak behar dira hizkuntza politika publikoetan, nire ustez.

4.1 DATU ITURRIAK

Nahitaezkoa da ikuspegi sozioekonomikoa hartzea neurketa soziolinguistiko nagusietan (mapa, inkesta soziolinguistiko eta EAS).

Kontrako norabidean, arlo ekonomiko eta sozialeko azterketa sektorialetan (Lanbide, Immigrazioaren Euskal Behatokia, gizarte zerbitzuen arloko azterketak), hizkuntzaren aldagaia kontuan hartzen hasi beharko litzateke.

4.2 EUSTAT

Datu bilketa berezirik egin gabe, Eustatek dituen datu baseen ustiapen adimentsu bat egin daiteke, ziurrenik, euskara gaitasuna eta erabilera gurutzatuta zenbait aldagai demografiko, sozial edo ekonomikoekin (migrazio mugimenduak, lan merkatua, hezkuntza, gizarte ohiturak, babes soziala, errenta edo kontsumo familiarra, besteak beste).

4.3 HEZKUNTZA

Eskola segregazioak hartzen dituen forma ageriko nahiz ezkutukoak dira, ziur asko, arrazoi nagusia, euskara ez dadin izan *pobreen hizkuntza*. Oso datu argigarriak eman zituen eskola segregazioaren eraginaz EABI 2018 azterketak.²⁰

Eskola publikoak euskara ardatz hartuta hezkuntza esparru eleaniztun bat bermatu behar du,²¹ baliabidez egoki hornitua,²² nahitaezko hezkuntza bukatzean ikasle guztiek B2 maila eraginkor baten jabe izan daitezen.²³

20. Ikus Izaskun Andueza eta Marcela Bejarano (2022) «Etorकिनak hezkuntza sistemaren bidez gizareratzea Euskadin?» in Biztanle etorkinen integrazioari buruzko joerak eta erronkak Euskadin: EAEko etorkin atzerritarrei buruzko inkestaren azterketa (EABI) 2018. Julia Shershneva, Maite Fouassier Zamalloa (koord.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. ISBN 978-8413194080. 179-215. or. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/epie2018eus.pdf>

21. Horrelaxe zehaztu zuen hezkuntza lege berrirako Eusko Legebiltzarreko lau alderdi nagusien arteko adostasunak. Ikus Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarrien txostenaren zirriborroa, ekintza planen 20. puntua. https://www.eitb.eus/multimedia/documentos/2022/03/24/2911265/Hezkuntza_Ponentzia_txostena.pdf

22. Ikus Askoren artean (2007) Euskal irakaskuntza aztergai. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. ISBN 978-8445725627. https://eima.orex.es/Bideoak/40123d3129d40a605335f09893191d12_6440.pdf

23. Ikus Gonzalo Larruzea «Hizkuntza-anabasa hezkuntzan» in Berria, 2023ko maiatzak 16. <https://www.berria.eus/pape-rekoa/2084/019/002/2023-05-16/hizkuntza-anabasa-hezkuntzan.htm>

4.4 HELDUEN EUSKALDUNTZEA

Doakotasun unibertsal eta eragingarri bat ezarri behar da C1 maila bitarteko euskalduntze urratsak benetan doan eta hutsaren truke izan daitezen ikasleentzat.

Argi dago gaur egungo beka formulak (dirua hilabete luzez edo urte osoan aurreratu beharra) segregazio forma bat besterik ez dela.

Euskaltegien eskaintza behar den lekuetara joan behar da, ezin da ikasleen zain egon. Ulertu behar genuke euskaltegiak «ez direla pobreentzako lekuak», han arrotz sentitzen direla sarritan.

Euskaltegien programazio helburuak, formulak eta ordutegiak egokitu egin behar dira sozialki ahulenen beharretara. Zilegi izan behar luke ikasle batzuek A1 edo A2 maila izatea helburu. B1 mailako lanpostuak mantendu beharko lirateke,²⁴ eta euskaldun pasiboen trebetasunak era ezberdinduan egiaztatzeko aukera bideratu beharko litzateke.²⁵

4.5 SEKTORE PUBLIKOAREN HIZKUNTZA POLITIKA

Lantegi pribatuetan euskara ikasteko erraztasunak edo liberazioak finantzatzeko baliabideak behar dira, administrazio publikoan egiten den gisara.

Lan merkatuari lotutako zerbitzuetan, bereziki Lanbiden, euskararekin lehen kontaktua edo lotura izateko aukerak eskaini behar dira, modu lasaian eta lan aukerak gehitzeko helburuari begira.

Beste horrenbeste gizarteratze zerbitzuetan: euskararekin hastapeneko urratsak egiteko aukerak planifikatu behar dira, euskaltegien sarearekin adostuta.

24. Ikus B1 mailaren zilegitasunari buruz Joseba Erkizia «Nik ez dut nahi euskaldun perfektuen ghetto bat, euskara gizar-tean ahalik eta zabalduena egotea baizik» in El Salto – Hordago, 2023ko maiatzak 3. <https://www.elsaltodiario.com/euskera/ghetto-euskaldunes-perfectos-euskera-habe-erkizia>

25. Ikus Lourdes Oñederra «Bilingüísimo práctico» in Galde 40. zk., 2023ko udaberria. <https://www.galde.eu/eu/numero-40-de-galde-%c2%b7sumario/>



